

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1817

996/2022 EBAZPENA, apirilaren 5ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bitartez Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategorian (Familia Medikua lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan, estatutupeko langile izateko hautaketa-probetarako epaimahai kalifikatzailea izendatu den.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren bidez, onartu egin dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2018 eta 2019an iragarritako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1474/2021 Ebazpenaren bidez, Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategorian (Familia Medikua lanpostu funtzional) oinarri espezifikoak onartu ziren (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako).

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lehen aipatutako kategoriako prozesuaren epaimahai kalifikatzailea izendatzea. Epaimahai hori Ebazpen honen eranskinean agertzen diren kideek osatuko dute.

Bigarrena.– Ebazpen honek daukan egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 5a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2022ko apirilaren 29a, ostirala

ERANSKINA

FAMILIA MEDIKUNTZAKO FEM-LMAT

Batzordeburua:

- Titularra: Iker Zarraga Olabbarri.
- Ordezkoa: Ana Isabel Zorrilla Artero.

Lehenengo epaimahaikidea:

- Titularra: Eluska Yetano Larrazabal.
- Ordezkoa: Jesús Marcos Zorita Valencia.

Bigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Edorta Zapirain Sarasola.
- Ordezkoa: Larraitz Zialtzeta Aduriz.

Hirugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Patricia Zaballa Erice.
- Ordezkoa: Eduardo Zubizarreta Alberdi.

Laugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Maite Zapirain Sarasola.
- Ordezkoa: Emilio Aberasturi Ramírez.

Idazkaria:

- Titularra: María Begoña Yenes Andrés.
- Ordezkoa: José Alberto García Fernández.